

LHKren Txostena: EAEko 2024 urterako laneko jaiegunen egutegi ofizialari onartzeko Dekretu-proiektua



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2024 URTERAKO LANEKO JAIEGUNEN EGUTEGI OFIZIALA ONARTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA

Aurrekariak

2023ko otsailaren 28an Kontseilu honen egoitzan Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak prestatutako Dekretu- proiektua sartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024 urterako Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzekoa.

Aipatutako Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak testu hori bidali zuen Kontseilu honetara, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3. artikulua xedatutakoa betez, Kontseiluak dagokion txostena egin dezan.

Gogoeta orokorrak

Dekretu-proiektu honek 2024 urterako Euskal Autonomia Erkidegoko laneko jaiegunak ezartzen ditu, hain zuzen ere, laneko jaiegun horiek arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuan finkatutako jarraibideen markoan.

Aipatutako Errege Dekretuak Estatuaren eremuko laneko jaiegunak ezartzen ditu. Autonomia erkidegoek ezin alda ditzakete horietako batzuk. Beste batzuk, berriz, aldatu egin daitezke, eta dagokion autonomia erkidegoak tradizioz berezkoak dituen beste batzuek ordeztu.

2001/1983 Errege Dekretuak autonomia erkidegoei ematen dien aukeratzeko ahalmen hori modu honetara zehazten da:

- a) Martxoaren 19a ala uztailaren 25a aukeratu ahal izatea.
- b) Errege Dekretuko 45. artikulua lehen zenbakiko d) atalean aipatzen diren jaiak (Ostegun Santua, urtarrilaren 6ko Jaunaren Epifania, eta martxoaren 19ko San Jose edo uztailaren 25eko Santiago Apostolua) tradizioz berezkoak dituzten beste batzuek ordezteak.
- c) Astelehenera eramaten diren jai nazionalak autonomia erkidegoetako jaiak ordezteak; horrela gertatzen da egutegi ofizialean ezarritako jaiak igandean suertatzen denean.

Berariazko gogoetak

Dekretu-proiektuan ezartzen den eta, gero, txostena egin dezan, Lan Harremanen Kontseiluari bidaltzen zaion 2024rako laneko jaiegunen egutegia egiteko aintzat hartu dira aipatutako Errege Dekretuan adierazitako parametroak eta parametro hauek eskaintzen dituzten aukerak.

LHKren Txostena: EAEko 2024 urterako laneko jaiegunen egutegi ofizialari onartzeko Dekretu-proiektua



Dekretu-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2024rako berariazko jaitzat hartzen du apirilaren 1a, Pazko Garizumako Astelehena.

Jai autonomiko hori aitortzeko erabiltzen den jai nazionala abenduaren 8koa da, Sortzez Garbiaren egunekoa, igandea delako eta, beraz, hurrengo astelehenera aldatuko delako.

Era berean, Dekretu-proiektuan ez da aukeratu espresuki ez martxoaren 19ko San Jose jaia, ez uztailaren 25eko Santiago Apostoluaren jaia.

Horren ordeztu, jai horietako bat ordeztuko du martxoaren 8ak, Emakumeen Nazioarteko Egunak.

Confebaskek, CCOOk eta UGTk izendatutako batzordekideen baterako gogoetak

Aurretiazko gaiak:

1.- LHK-k eduki soziolaboraleko arau-proiektuei dagokienez duen kontsultafuntzioak ez dakar, inola ere, legezketasun-kontrolik, eta ez dakar, proiektua kokatzeko beharrezko kontsiderazio teknikoek gain, haren iritzipean jartzen diren ekimenen azterketa egitea termino juridiko hutsetan.

Kontsultafuntzio hori, funtsean, gizarte-eragile adierazgarrienen iritzia ematean datza, egokitasunari dagokionez, edo, nahiago bada, beste instantzia batzuetan aztertu behar diren araudi-proiektuei buruzko balorazio politikoari dagokionez.

2.- Aintzat hartuta noiz bidali zaion LHKri 2024rako EAEko lan-egutegia onartzeko Dekretu-proiektua, baterako gogoeta hori egin duten gizarte-eragileek uste dute ez dagoela presazko arrazoirik araua berehala onartzeko; behintzat, ekimen honen inguruko testuinguruan, zeina hurrengo ataletan aipatuko baita.

Sakoneko gogoetak:

1.- Confebaskek, CCOOk eta UGTk izendatutako LHK-ko txostenen batzordeko kideek lehenik eta behin adierazi nahi dute ez daudela EAEko jaiegunen artean emakumearen egun bat ospatzearekin lotutako jardunaldi bat sartzearen aurka.

2.- Alde horretatik, argi dago martxoaren 8a finkatutako data dela nazioartean, eta erreferentzia baliotsua dela EAEko jai-efemeride propio bat izendatzeko. Hala eta guztiz ere, egokia eta guztiz justifikatua dirudi egun zehatz bat identifikatzeko gogoeta-prozesu bat abiaraztea. Prozesu horretan, zalantzarik gabe, gizarte-eragileak parte hartzera deituta daude, baina ez modu eskusiboan, feminismoaren esparruarekin zuzenean lotutako beste erakunde eta/edo elkarte adierazgarri batzuk ere badaudelako. Egundak hori zein izan litekeen erabakitzeko adostasun osoa edo, gutxienez, adostasun zabala

LHKren Txostena: EAEko 2024 urterako laneko jaiegunen egutegi ofizialari onartzeko Dekretu-proiektua



egoteak, txostenen batzordeko kideon ustez, EAEn emakumearen eguneko jai espezifiko bat errotzen lagunduko luke, ikuspuntu sozial zein politikotik.

3.- Aurreko gogoetak Eusko Legebiltzarrak 2023ko martxoaren 2an onartutako Legez Besteko Proposamenean (LPN) adierazitakoaren ildotik doaz. Proposamen hori, gainera, Jaurlaritzaren euskarri diren legebiltzar-taldeen transakzio-zuzenketa baten emaitza da.

Ondorioz, Confebaskek, CCOOk eta UGTk izendatutako LHKren txostenen batzordeko kideen ustez, lan-egutegia onartzeko Dekretua une honetan onartzeko benetako premiarik ez dagoenez, eta aurreko gogoetak egin ondoren, ez da egokia Sailak, martxoaren 19a eta uztailaren 25a ordeztzeko (data alternatiboak), martxoaren 8a EAEn jaiegun izendatzeko erabakiari buruzko adierazpen espliziturik egitea.

LABek izendatutako batzordekidearen gogoetak

LABek izendatutako Txostenen Batzordeko kideak nabarmendu du, lehenik eta behin, gaur egun lan-egutegia eskumen instituzional partekatua dela; horren arabera, Espainiako Gobernuari dagokio hamar egun finkatzea, bi EAERI, eta gainerako biak Foru Aldundiei eta Udalei tokiko jaiegun gisa.

Urte asko daramatza LABek salatzen euskal erakundeek ez dutela gaitasunik egutegi propio bat egiteko, euskal erakundeen eta eragile politiko eta sozialen arteko akordioaren bidez gure errealitate politiko, kultural eta sozialaren ispilu izango dena. Ildo horretan, egutegiaren izaera inposatua salatzen ari da (kasurik gehienetan), eta jaiegun batzuen izaera arrotza.

Bestalde, sentitzen du EAEko gizarte-eragileek, hau da, sindikatuek eta enpresariak, arlo honetan ez baliatzea alderdien autonomia askea, enpresen eta lantokien negoziazio kolektibotik euskal gizartearen nortasun nazionala eta errealitate politiko, kultural eta soziala errespetatzen duten lan-egutegiak egiten sakontzeko. LAB prest dago gai horretan negoziatzeko eta akordioa lortzeko.

Bigarrenik, eta 2024rako egutegi-proiektuari berariaz dagokionez, adierazi nahi du bere erakundea ez dela emakumearen egun bat ospatzearekin lotutako jardunaldi bat EAEko jaiegunen artean sartzeko aukeraren aurkakoa ere.

Hala ere, ekimen zehatz hori iragartzeko erabili den moduak, bai eta aukeratu den uneak eta formak ere (dekretu-proiektu baten bidez), agerian uzten dute, bere ikuspuntutik, proposamena egin duen sailaren aldetik etekin politikoa lortzea eta beste aldarrikapen feminista batzuei eragin mediatikoa kentzea edo eragin hori arintzea baino ez dela lortu nahi, bereziki, martxoaren 8an emakumearen eguna dela-eta zaintzaren aldeko greba egingo dela iragarri den honetan. Horrela jokatuta, interes orokorrekoa den eta sindikatuen eta feminismoaren arloko eragile ugari inplikatu beharko lituzkeen gai bati buruzko sakoneko eztabaida saihestu nahi da.

**LHKren Txostena: EAEko 2024 urterako
laneko jaiegunen egutegi ofizialari
onartzeko Dekretu-proiektua**



Bada, arrazoi horiek guztiek sobera justifikatzen dute LABeko kidearen aldetik Lan Harremanen Kontseiluak txostena egin dezan bidalitako dekretu-proiektuaren aurkako botoa.

IRIZPENA

Aintzat hartuta aurreko gogoetak, LHK-ko Txostenen Batzordeak, Confedebak, CCOOek eta UGTk izendatutako kideen aldeko botoarekin eta LABek izendatutako kidearen aurkako botoarekin, IRIZPEN hau eman du, txosten honen aurreko ataletan jasotako baldintzetan, eta bertan emandako arrazoiengatik.

Bilbo, 2023ko martxoaren 14a.